

LABORAL KUTXAKO KONTSEILU ERREKTOREKO KARGUAK BERRITZEA

Caja Laboral Popular, Coop. de Cr ditok —aurrerantzean, Laboral Kutxa—, haren Kontseilu Errektoreak urriaren 27ko ohiko bilkuran hartutako erabaki bidez, kontseilariak berritzeko prozedura abiaraztea erabaki zuen. Agintaldia 2017an amaitzen zaien 6 kide titularri eta 3 ordezkori eragingo dio prozesuak. Horietatik, 2 titular eta ordezeko 1 lan-bazkideak dira.

Lan-bazkideen kasuan, Kontseilu Sozialaren bidez garatutako prozedura espezifikoa erabiliz aurkeztuko dira aurre-hautagaiak.

Hautagai izan nahi duten gainerako bazkideek eskabide-idazkia igorri beharko diote Kontseilariak Hautatu eta Ebaluatzen arduradunari, **comitenombramientos@laboralkutxa.com** helbidera. Idazkian, 2017ko hurrengo Batzar Nagusian hautatuko den Kontseilu Errektorean parte hartu nahi duela adierazteaz gain, izena emateko inprimakia eskatuko du, bete ondoren bueltan bidaltzeko, ezinbestekoa baita prozesu horretarako.

Hautagaien lehen zerrendako partaide izateko inprimakiak 2016ko azaroaren 4tik 2016ko abenduaren 15era bitartean aurkeztuko dira.

LABORAL Kutxaren bereizgarrien artean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zaintzea dago. Horren harira, genero aldetik osaera orekatua izango duen hautagai-zerrenda osatu nahi du Kontseilu Errektoreak, eta, horretarako, ezinbestekoa da nahi duten LABORAL Kutxako emakume bazkideek prozesuan parte hartzea eta hautagaitza aurkeztea.

Onartutako hautagaiek egokitasun-azterketa bi gainditu beharko dituzte: lehenik, barruko irizpideen arabera eta, bigarrenik, Espainiako Bankuarena. Indarrean dagoen arautegia eta Kontseilariak eta Funtsezko Pertsonala Hautatzeko eta Egokitasuna Ebaluatzen Prozedura Gidaliburuan ezarritako irizpideak bete beharko dira.

I naki Josu Go ni Gabilondo
Kontseilu Errektoreko Idazkaria
Arrasaten, 2016ko urriaren 27an

Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Legean —aurrerantzean, LOPD— jasotakoari jarraiki, CAJA LABORAL POPULAR, Coop. de Cr ditok jakinarazten dizu, karguak berritzeko prozesu honetan zuk emandako datuak CAJA LABORAL POPULAR, Coop. de Cr ditoren jabetzako fitxategi batean gordeko direla, Caja Laboral Popularreko Kontseilu Errektoreko hautagai-zerrendako kide izateko eskabidea tramitatzeko.

Datuak bidaltzen badituzu, berariazko baimena ematen duzu datu horiek aurreko paragrafoan adierazi den helbururako erabiltzeko.

Alabaina, eskubidea izango duzu, datuok ikusteko, aldatzeko, ezabatzen eta aurka egiteko. Horretarako, nahikoa duzu CAJA LABORAL POPULAR, Coop. de Cr ditoren idazki bat bidaltzea, J. M. Arizmendiarieta pasealekua, zk.g., 20500 Arrasate helbidera edo comitenombramientos@laboralkutxa.com helbide elektronikora.